

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia —2021. urtea— finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeari onespena emateko erabakia

2021eko urriaren 29an egindako bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia —2021. urtea— finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeko proposamena. Honela jasotzen da erabaki horretan:

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn —148. zk.— argitaratu ziren oinarri horiek.

2021eko martxoaren 5ean egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak enpresak sortzeko eta finkatzeko 2021eko laguntzen udal programaren deialdi publikoa eta hura arautzeko berariazko oinarriak.

2021eko urriaren 20an, txosten tekniko bat egin zen, eta Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntzen udal programaren 2021eko deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 64.469,00 euroan gehitzea proposatu zen bertan, uste izanenez badirela deialdiaren oinarrietan adierazitako betebeharrak betetzen dituzten hainbat proiektu aurrekontu-zuzkidurarik ezean dirulaguntzarik gabe geratuko lirakeenak.

Txosten tekniko horretan argudiatzen da COVID-19aren pandemiak eta horrek ekarri duen krisi ekonomikoak markatutako aldi inbertsioak egin dituzten enpresak direla, eta, horrenbestez, gomendatzen da deialdiaren oinarrietan jasotako betebeharrak betetzen dituzten kalitateko proiektuak diruz lagundu daitezela.

Laguntza horien deialdiaren seigarren oinarrian aukera ematen da lehenengo laguntzak ebatzi aurretik deialdiaren zuzkidura handitzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak kudeatutako deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

Bada deialdian hasiera batean aurreikusitakoa baino kreditu handiagorik, egindako hainbat aurrekontu-aldaketaren ondorioz, kreditu hori Gasteizko Udalaren 2021eko ekitaldiko aurrekontu orokorretan sartu ondoren, eta ez dago xede hori duten dirulaguntzak emateko ebazpenik.

Egiaztatu da badela nahikoa zuzkidura egokirik horretarako 2021erako onetsitako udal aurrekontuko 08.21.4331.489.67 partidari atxikita.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta horietako baldintzak onesteko —eta behar izanez gero aldatzeko— eskumena, beraren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bideratzea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Horrenbestez, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten du:

Erabaki-proposamena

Lehen. Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko martxoaren 5eko erabakiaren bitartez onetsitako enpresak sortzeko eta finkatzeko 2021eko laguntzen udal programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak 64.469,00 euro handitzea.

Horrenbestez, Udalaren laguntza-programa hori finantzatzeko baliabide ekonomikoak, guztira, 204.469,00 eurokoak izango dira.

Bigarrena. 64.469,00 euroko gastua esleitzea 2021. urterako onetsitako aurrekontuko 08.21.4331.489.67 partidari atxikita dagoen saldo erabilgarriaren kontura.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta Udalaren webgunean argitara dadila agintzea, erabakitakoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen jasota utzi ondoren.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 29an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO*